

# EUROPEAN DAYS OF LOCAL SOLIDARITY

[www.localsolidaritydays.eu](http://www.localsolidaritydays.eu)  
#localsolidaritydays

2018  
azaroa  
5tik 18ra

## Nola egin bat 2018ko Tokiko Elkartasunaren Europako Egunekin?

### Kanpaina

Hiriak eta eskualdeak dira garapen iraunkor globala lortzeko egin beharreko bidearen gidari! Nola egiten dute hori, baina? Mundu osoko hiri eta eskualdeekin egiten dituzten nazioarteko lankidetzeta-proiektuen bidez eta iraunkortasunari lotutako erronkak egunez egun irtenbideei begira kudeatuz.

Tokiko Elkartasunaren Europako Egunek (EDLS ingelesez) Europako hiri eta eskualdeei dei egiten diete beren herritarrei kontzientzia harraraz diezaieten garapen iraunkor globalaren erronkez eta ekiteko premiaz.

**2018ko edizioa 2018ko azaroaren 5etik 18ra artean izango da. Ez huts egin!**

### Mezu-gakoak

**Europako hiriek eta eskualdeek indartu egiten dute herritarrek garapen iraunkor globalarekin lotutako gaiez duten ezagutza.**



#### EKIMENA!

Jendaurreko ekimenak antolatzea eta sustatzea, **garapen iraunkor globalarekin lotutako erronkez** eta elkartasunaren garrantziaz **informatzeko eta eztabaidatzeko, hiriak nazioarteko lankidetzeta-proiektuetan duen esperientzia azpimarratuz.**

**Europako hiriek eta eskualdeek babestu eta sustatu egiten dituzte tokian eragin handia duten garapen-hezkuntzarako eta herritarren partaidetzarako ekimenak.**



#### EKIMENA!

Gizarte zibileko erakundeekin, herritar taldeekin eta ikastetxeekin lankidetzan jardutea, herritarren konpromiso aktiboa eta elkartasuna irmoki sustatzen duten **sentsibilizazio-kanpainak, jendaurreko ekimenak eta trebakuntza-ekimenak antolatzeko eta babesteko.**

**Europako hiriek eta eskualdeek garapen iraunkorraren aldeko konpromiso politikoa sustatzen dute nazio, Europa eta mundu mailan.**



#### EKIMENA!

Europar barrena alkateen eta tokian tokiko ordezkarien arteko eztabaida sustatzea, eta nazio eta mundu mailako erabaki-hartzaileekin trukeak sustatzea **elkartasunak eta lankidetzeta «deszentralizatuak»** tokian tokiko eta mundu mailako garapen iraunkorrean duten **eragin positiboaren** gainean.



## Eragin zure hiriak edo eskualdeak parte har dezan!

Planifikatu zure EDLS ekimena 2018ko azaroaren 5etik 18ra artean

Zer da EDLS ekimen bat?

- Europako herri batek edo eskualde batek, edo tokian tokiko eta eskualde mailako gobernuen elkarte batek (besterekin batera) antolatzen duen ekimen bat da.
- Aukera bat da herritarrentzat, tokian tokiko eta eskualde mailako hautetsi eta ordezkariarentzat, gizarte zibileko erakundeentzat eta tokian tokiko beste eragile batzuentzat ikasteko, harreman-trukeak izateko, eztabaidatzeko eta ospatzeko.
- Europako hiriek eta eskualdeek garapen iraunkor globalari egiten dioten ekarpena jartzen du erdigunean, arreta berezia jarritz beren nazioarteko lankidetzan eta hirien arteko aliantzan.

## 2018ko EDLS egitarauari buruzko datu batzuk

Giza eskubideak, ekonomia soziala, mugaz gaindiko kultura-trukeak, genero-berdintasuna lankidetzaren deszentralizatuan... 2018ko EDLS egitarauan hainbat ekimen daude, Europako hiriek eta eskualdeek sustatuak eta tokian tokiko GKE-ekin eta herrialde kidetuekin egindako lankidetzaren bidez eraikiak.



Informazio gehiago nahi izanez gero  
[www.localsolidaritydays.eu](http://www.localsolidaritydays.eu)



Contact us at [platforma@ccre-cemr.org](mailto:platforma@ccre-cemr.org)

## Egin bat kanpainarekin!

- **Erabili EDLS kanpainako tresnak** edo gehitu EDLS logotipoa zure materialari zure ekimena sustatzeko eta beronen mezu-gakoak indartzeko. Orobat sustatuko da EDLS webgunearen bidez ([localsolidaritydays.eu](http://localsolidaritydays.eu)) eta Twitter kanpainaren bidez ([#localsolidaritydays](https://twitter.com/localsolidaritydays)).
- **Izenpetu EDLS ituna zure hiriak** balio amankomun hauen alde egiten duen konpromisoa formalizatzeko: demokrazia, elkartasuna, erantzunkidetasuna eta lankidetzaren. Europako homologoen babesak areagotu egin dezake zure hiriak garapen iraunkor globalaren alde hartzen duen konpromisoaren aitorpen politikoa eta soziala.
- **Egin bat** aldizka-aldizka tokian tokiko ikuspegitik sentsibilitatea areagotzeko tresnez, garapen-hezuntzaz eta garapen iraunkorraz ideiak trukatzeko, ikasten eta eztabaidatzen aritzen diren **Europako hiri eta eskualdeen komunitatearekin**.

## 2017an...



Pariseko Udalak ongi etorria eman zion Festisol elkartasun-jaialdiaren inaugurazio-ospakizunari. Jaialdi horren baitan, milaka ekitaldi egiten dira Frantzia osoan. Udalak informazio-mahai bat jarri zuen bere nazioarteko lankidetzaren proiektuei buruzko informazioarekin.



Bartzelonako probintziak alkateak eta tokian tokiko ordezkariak bildu zituen herritarrei garapen iraunkor globalaren gainean kontzientzia harrarazteko tresna berriez hitz egiteko. Artista batek marrazkien bidez jaso zituen ondorioak.



Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluaren Italiako Batzordeak bat egin zuen Veneziako enprekin jendaurreko erakusketa bat antolatzeko tokiko ekimen batzuei buruz, gaitzat zutenak bidezko merkataritza eta ekonomia soziala tokiko merkatuaren parte gisa.

EDLSak PLATFORMAK antolatzen ditu: hau da, hirien arteko eta eskualdeen arteko garapen-lankidetzan diharduten Europako hiri eta eskualdeen eta haien elkarten sareak. Ekimen hau CEMR-PLATFORMAREN eta Europako Batzordearen artean izenpetutako Lankidetzaren Estrategikorako Hitzarmenaren esparruan garatzen da. Europar Batasunak kofinantzatzen du.



Proiektu honek Europar Batasunaren babesa du.



ACCION



Local & Regional Europe



Diputació Barcelona



EUSKAL FONDOA



fons mallorquí



Generalitat de Catalunya



LATVIAN ASSOCIATION OF LOCAL AND REGIONAL GOVERNMENTS



LANDELIJK BERAAD SYDENHARDEN NEDERLAND-NICARAGUA



Nantes Métropole



Generalitat de Catalunya



FESTIVAL SOLIDARITÉS

